EUROPAR POSIZIONAMENDUA

EUROPAR POSIZIONAMENDUA

Hazteko elkartu

Berrikuntza Europarekin konektatzea funtsezkoa da haren irismena handitzeko eta aukera berriak sortzeko. Berrikuntza nazioarteko sareetan garatzen da gero eta gehiago, eta testuinguru horretan, gaitasunak posizionatzea, aliantzak eratzea eta Europako programetan sarbidea izatea faktore erabakigarriak dira hazteko eta lehiatzeko.

Esparru horretan, 3. Moduluaren xedea da enpresei Europako ingurunean posizionatzeko bultzada ematea. Horretarako, hainbat gako ematen zaizkie I+G+b programetan aukera berriak baliatzeko, haietan lankidetzan jarduteko, finantzaketa eskuratzeko eta parte hartzeko; orobat, enpresen proiekzioa, eragiteko ahalmena eta nazioarteko eskalan izan dezaketen inpaktua ere sendotzen da ikastaro hauetan.

www.eenbasque.net

NOLA KOKATU I+G+B PARTZUERGO IRABAZLEETAN *LOBBY*-A EUROPAR BATASUNEAN

EMAN IZENA

DATAK ETA ORDUTEGIA	Asteartea, irailak 29. 9:00etatik 11:00etara.
FORMATUA	*Online.*
LEKUA	Plaza baieztatzerakoan bidaliko da esteka.
IRAUPENA	2 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik: • Horizonte Europarako I+G+B arloko Europako proiektuak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat. • Europako programetan I+G+B proiektuak aurkezten eta prestatzen eskarmentua dutenentzat. ***Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.**

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Horizonte Europa 2021-2027 esparru-programa aurkeztea eta I+G+B partzuergo irabazleetan posizionamendu hobea lortzeko gakoak ezagutzea.
- Europar Batasunean eta Horizonte Europa programan *lobby*aren praktika eta prozesua zein den ulertzea.
- Europako Batzordera heltzeko beste sarbide batzuk ezagutzea, hala nola lankidetza berriak, zuzendaritza nagusiak eta agentzia exekutiboak.
- Hainbat ingurune eta estrategia ezagutzea eta ikastea, irabazle izan daitezkeen Europako proiektuen partzuergoak aurkitzeko, aztertzeko eta haietan parte hartzeko. Ikertzaileei eta proiektu kudeatzaileei jardueren eta gomendioen protokolo bat eskaintzea, Europako ekosisteman arrakastaz eta eraginkortasunez erlazionatzeko.

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

- *Lobby*aren praktika eta prozesua Europar Batasunean eta Horizonte Europan.
- Lankidetza berriak, zuzendaritza nagusiak eta agentzia exekutiboak. Europako Batzordera heltzeko bestelako sarbideak.
- Nola kokatu proiektu irabazleetan. Partzuergoetara sartzea eta koordinatzaileekin eta partaideekin negoziatzea.

PRESTAKUNTZAREN GIDARIA

JAVIER MEDINA ANTÓN

QI EUROPEKO *CEO*-A

Ekonomialaria, finantzetako espezialitatea. Negozio Energetikoetako eta PDGko masterra, IESE Business Schoolen. Madrilgo Ekonomisten Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Erkidegoko enpresa-mentore ziurtatua eta Europako Batzordeko *Women Leadership* programako mentorea. 1995 urteaz geroztik, esparru hauek landu ditu bere ibilbide profesionalean: negozio-eredu berrien diseinua eta garapen estrategikoa (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioak, errentagarritasunak eta kostuak, *seed & startup* kapitala, *private equity*, *venture capital*, lehiakortasuna eta produktibitatea), teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+B proiektuak (teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, DFC eta *Venture Capital Method* balorazioa, egituraketa, negoziazioa eta salmenta/aliantzak), eta I+G+B proiektuak idazketa, kudeaketa eta justifikazioa, eta negozio berrien garapena (merkatua erakartzea, dibertsifikatzea, hazkundea eta nazioartekotzea) ingurune digital/teknologiko/industrialetan, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzu teknologiko berrien garapenean erantzukizun zuzena izanik.

www.eenbasque.net

HORIZONTE EUROPARAKO I+G+B ARLOKO EUROPAKO PROIEKTUAK PRESTATZEKO IKASTARO AURRERATUA

EMAN IZENA

DATAK, ORDUTEGIA ETA LEKUA	**1.saioa.** Asteartea, urriak 6. 9:00etatik 14:00etara **3.saioa.** Asteartea, urriak 20. 9:00etatik 14:00etara Sala Txorierri del Edificio Central (Edificio 101), Campus Zamudio/Derio – Parque Tecnológico de Euskadi. **2.saioa.** Asteartea, urriak 13. 9:00etatik 14:00etara **4.saioa.** Asteartea, urriak 27. 9:00etatik 14:00etara Sala Kreagune del Edificio Central (Edificio 101), Campus Zamudio/Derio – Parque Tecnológico de Euskadi. * Lau saioetan parte-hartzea derrigorrezkoa da.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
IRAUPENA	20 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik: • Horizonte Europarako I+G+B arloko Europako proiektuak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat. • Horizonte Europako programetan I+G+B proiektuak aurkezten eta prestatzen esperientzia dutenentzat. ***Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.**

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Horizonte Europa 2021-2027 esparru-programa, haren egitura, helburuak, modalitateak, aurrekontua eta abar ezagutzea.
- Proposamen arrakastatsu bat egiteko gaitasunak eskuratzea, lehentasun politikoekin eta 2025-2027 programa estrategikoarekin lotutako irizpideak barne direla.
- Proposamenak idazteko gaitasuna hobetuko duten *tip*-ak ezagutzea eta praktikatzea, hala nola, helburua, research *output*, produktua, outcome eta inpaktua bereiztea edo eta Europako Batzordeak espero dituen inpaktu motak ezberdintzea.
- Proiektuaren teknologia beste aldagai batzuetara itzultzen ikastea: lehiakortasun-abantaila jasangarria, produktibitatea edo industria-lidergoa izan daitezke aldagai horietako batzuk. Produktu teknologiko batek merkatuan porrot egiteko izan ohi diren akats nagusiak identifikatzea. Eta negozio-eredua proposamenen arrakastan zein porrotean giltzarria izan daitekeela aintzat hartzea.
- Europako Batzordearen ebaluazio-irizpideak zehatz-mehatz ezagutzea eta horiek betetzeko proposamenak nola bideratzen diren jakitea.
- Teknologia bati lotutako negozio-plan bat edukitzearen garrantzia ulertzea.
- Operazio- eta finantza-gaitasuna koherentziaz defendatzea.
- Azpikontratazioa eta ondasun eta zerbitzuen erosketa ondo bereiztea.

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

Horizonte Europaren ingurune orokorra eta egitura

- Lehentasun politikoak eta 2025-2027 agenda estrategikoa.
- Horizonte Europaren egitura. Agentzia betearazleak.
- Horizonte Europaren eta Europako beste programa batzuen arteko sinergiak.
- Europako lankidetzak, motak eta aukerak.
- Hautagarritasun-irizpideak eta finantzaketa-motak.
- Proiektu baterako ideiak aztertzea eta Horizonte Europara egokitzea.

Proposamenaren plangintza

- *The Funding & Tenders Portal* atariaren berrikusketa laburra.
- Horizonte Europan garrantzitsuak diren zeharkako alderdiak.
- Partzuergo arrakastatsu baten ezaugarriak.

Proposamenaren prestakuntza

- A zatia: informazio administratiboa.
- B zatia: memoria teknikoaren txantiloia eta eranskinak.

Proposamenaren ebaluazioa

- Ebaluazio-prozesua eta erreklamazioetarako prozesu berria.
- Atal bakoitzeko ebaluazio-irizpideak eta ebaluatzailearen oniritzia jasotzeko gakoak.

PRESTAKUNTZAREN GIDARIA

JAVIER MEDINA ANTÓN

QI EUROPEKO *CEO*-A

Ekonomialaria, finantzetako espezialitatea. Negozio Energetikoetako eta PDGko masterra, IESE Business Schoolen. Madrilgo Ekonomisten Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Erkidegoko enpresa-mentore ziurtatua eta Europako Batzordeko *Women Leadership* programako mentorea. 1995 urteaz geroztik, esparru hauek landu ditu bere ibilbide profesionalean: negozio-eredu berrien diseinua eta garapen estrategikoa (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioak, errentagarritasunak eta kostuak, *seed & startup* kapitala, *private equity*, *venture capital*, lehiakortasuna eta produktibitatea), teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+B proiektuak (teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, DFC eta *Venture Capital Method* balorazioa, egituraketa, negoziazioa eta salmenta/aliantzak), eta I+G+B proiektuak idazketa, kudeaketa eta justifikazioa, eta negozio berrien garapena (merkatua erakartzea, dibertsifikatzea, hazkundea eta nazioartekotzea) ingurune digital/teknologiko/industrialetan, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzu teknologiko berrien garapenean erantzukizun zuzena izanik.

www.eenbasque.net

HORIZONTE EUROPA JUSTIFIKATZEKO TAILER PRAKTIKOA

EMAN IZENA

DATAK ETA ORDUTEGIA	Asteartea, azaroak 17. 9:00etatik 14:30era.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Eraikin Nagusiko auditoriuma (101 eraikina), Zamudio/Derioko campusa – Euskadiko Parke Teknologikoa.
IRAUPENA	5,5 ordu.
PLAZAK	30
NORENTZAT	Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik: • Horizonte Europarako I+G+B arloko Europako proiektuak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat. • Horizonte Europako programetan I+G+B proiektuak aurkezten, kudeatzen eta justifikatzen eskarmentua dutenentzat. ***Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.**

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Horizonte Europa 2021-2027 esparru-programa, haren egitura, helburuak, modalitateak, aurrekontua eta abar ezagutzea.
- Horizonte Europa 2021-2027 esparru-programaren kudeaketa eta justifikazio prozedura nagusiak ezagutzea.
- Ondo bereiztea azpikontratazioa eta ondasun eta zerbitzuen erosketa.
- Gastu kategorietan justifikazio-akats nagusiak saihestea, batez ere langileei eta ekipoen amortizazioari dagokienez.

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

Orain arteko desberdintasun nagusiak

- *Grant Agreement*-en egitura.
- Hautagarritasun-baldintza orokorrak. Kasu espezifikoak.
- Aldaketak eta parte hartzeko figura berriak (*affiliated, associated, international organizations, researchers, other participants eta non-EU*).

Langileen kostuak: Langile motak eta kalkulu orokorra

- Egun baliokideak eta gehieneko egunak.
- Eguneko kostua. Bonusa eta soldata-eguneratzeak hurrengo aldietan.
- *Project-based remuneration*. Aukerak: ordainsari finkoak, proiektuetan oinarritutako ordainsaria eta proiektu nazionalekin duten harremana eta langileen batez besteko kostuak.
- Kasu espezifikoak: bajak, gurasotasun-baimenak, telelana eta kalte-ordainak.
- Dokumentuen erregistroa, *timesheet*-ak eta epeak.
- Orduak egun baliokide bihurtzea (3 modu).

Azpikontratazioak

- Beste ondasun, lan eta zerbitzuekiko desberdintasunak.
- Nola ezartzen da arrazoizko balioa? Zein zenbatekotik aurrera egin behar dira lehiaketak?
- Kasu espezifikoak (prozedura erraztua).

Erosketen kostuak

- Programaren araberako ezberdintasunak. Kasu espezifikoak.
- Bidaiak, ostatua eta mantenua. Programen arteko ezberdintasunak (egungo kostuak eta *unit cost* direlakoak).
- Ekipamendua.
- Beste ondasun, lan eta zerbitzu batzuk.

Justifikazioaren beste alderdi batzuk

- Elkarrekiko aseguru mekanismoa.
- Onuradunen egoera-orri finantzarioak euro monetara bihurtzea.
- Onuradun baten amaiera. Europar Batasunari egindako itzulketak.
- Proiektuaren eraginaren ebaluazioa. Informazioa eta epeak.
- Denbora estandarrak proiektua amaitzen denean (konfidentzialtasuna, dokumentu-erregistroak, berrikuspenak, auditoriak eta inpaktua).
- *Lump Sum* (*reporting process, payments* eta erregistroa).

PRESTAKUNTZAREN GIDARIA

JAVIER MEDINA ANTÓN

QI EUROPEKO *CEO*-A

Ekonomialaria, finantzetako espezialitatea. Negozio Energetikoetako eta PDGko masterra, IESE Business Schoolen. Madrilgo Ekonomisten Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Erkidegoko enpresa-mentore ziurtatua eta Europako Batzordeko *Women Leadership* programako mentorea. 1995 urteaz geroztik, esparru hauek landu ditu bere ibilbide profesionalean: negozio-eredu berrien diseinua eta garapen estrategikoa (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioak, errentagarritasunak eta kostuak, *seed & startup* kapitala, *private equity*, *venture capital*, lehiakortasuna eta produktibitatea), teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+B proiektuak (teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, DFC eta *Venture Capital Method* balorazioa, egituraketa, negoziazioa eta salmenta/aliantzak), eta I+G+B proiektuak idazketa, kudeaketa eta justifikazioa, eta negozio berrien garapena (merkatua erakartzea, dibertsifikatzea, hazkundea eta nazioartekotzea) ingurune digital/teknologiko/industrialetan, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzu teknologiko berrien garapenean erantzukizun zuzena izanik.